

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

6/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa, Arabako Errepideen 2016-2027rako Plan Integrala onartzekoa

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko martxoaren 20an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

6/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa, Arabako Errepideen 2016-2027rako Plan Integrala onartzekoa.

Ekainaren 16ko 11/2008 Foru Arauaren bidez, behin betiko onetsi zen Arabako errepideen plan integrala 2004-2015 aldirako.

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 19ko 334/2018 Erabakiaren bidez, onetsi zen "Arabako errepideen 2004-2015eko plan integralaren eguneratzearen, aldaketaren edo berrazterketaren 2016-2027rako aurreproiektua", bai eta hura jakinaraztea ere Arabako Lurralde Historikoko udal-erri eta kontzeju guztiei, Lurralde Antolamenduaren Batzordeari eta Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzari, eta iragarkia 2018ko uztailaren 2an ALHAOn argitaratu zenetik aurrera berrogeita bost (45) egunez hura jendaurrean jartzeko eta eragindako toki erakundeei entzunaldia emateko nahitaezko izapidea egin zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 444/2018 Erabakiaren bidez, xedatu zen aurreproiektu horren jendaurreko eta entzunaldirako epea luzatzea 2018ko irailaren 21era arte.

Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 27ko 658/2018 Erabakiaren bidez, ebatzi ziren aurreproiektua jendaurrean jartzeko eta entzunaldia emateko izapidean epe barruan aurkeztutako alegazioak.

Bestalde, Arabako errepideen 2004-2015eko plan integralaren 2016-2027rako eguneraketa, aldaketa edo berrazterketari ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura aplikatu zaio, honako hauetan xedatutakoaren arabera: abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen ebaluazioarena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko ingurugiroa babestekoa; eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretua, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.

Era berean, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Zuzendaritzak ingurumen adierazpen estrategikoari buruzko adierazpena idatzi du, hartara betetzearen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak 13.5 artikuluan xedatutakoa, bai eta abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, zeina erantsi baitzaio espedienteari, 26.2 b) artikuluan ezarritakoa ere.

Lurralde Antolamenduaren Batzordearen proposamen txostena jaso da.

Alegazioen ebazpena eta ingurumen adierazpen estrategikoa ikusita, Arabako errepideen 2004-2015eko plan integralaren eguneratzearen, aldaketaren edo berrazterketaren 2016-2027rako proiektuaren testua prestatu da.

Ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko errepideenak, 14. artikulutik 16.era bitartean (biak barne) xedatutakoaren arabera, errepideen plan integralaren berrazterketa egiteko bete behar da hura onesteko ezarritako prozedura berbera, zeinean, ezarritako agirien edukiaz eta hasieran azaldu bezala jendaurrean jartzeko izapidea egin beharraz gain, xedatu baita Foru Aldundiak onespena eman behar diola proiektuari eta Batzar Nagusietara igorri behar dela, behin betiko onetsi dezan.

Era berean, maiatzaren 23ko Foru Gobernu Kontseiluaren 29/2017 Foru Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozedura, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenak, xedatutakoari jarraituz izapidetu da.

Abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubideari buruzkoak, 6.1.1.1 artikuluan xedatutakoa aztertu da.

ARTIKULU BAKARRA

Behin betiko onestea Arabako errepideen plan integrala 2016-2027 aldirako.

AZKEN XEDAPENA

Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 20a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA